

EUSKERAZALEAK

BATASUNA BAI, SAKABANATLERIK EI

Zugana nator, zugana, emen goian ikusten dozun idatz-puru berberaz idatzi zenduanagana, ain zuzen be bizkaierari eutsi ta indaremolle izan diran buru-Batzarrekoen arteko izan zaran orregana.

* *

Bizkaieraz idaz tea, bularra ta bizi-garria berari emotea, ez dozu begi onez ikusten, eta atzagiltzakaz kosk-kosk atean deiturik, aterpea ta babesa eskatu dautzun illeroko apala, bere jaiotetxera bialdu dauskuzu zure etxe-koakaz izan zendun ASANBLADAN

artutako AKORDUZ, ezkabidun txakur baltza ba'litza lez, patxikokeri au bizkarrean ipiñirik: «Batasuna BAI, sakabanatzerik EZ».

* * *

Katuen marrau-miauak zezeillean eta astoen arrantzak orrillean entzutean, ez gara iñor larritzen, baiña Bilbo'n, titare bete atxur lur ez daukan uriburuan, babak lora batean ikus-tean, larritu ezezik arri gogortu gaitu.

Esan egiguzu bada, noiztik dan bizkaiera sakabanatzaille.

* * *

Batasuna eskatzen dauskuzu, batasuna ta alkartasuna gura neukez nik neuk be.

Aita ete dago baiña, etxetik igesian aldendu dan semeagaz batasuna egi-tera bearturik?

*

Eta oraingo au amaitzeko, itauntxu bat besterik ez.

Ez al dozu iñoizen baten entzun, belarri utsa zan astotzarrak mandoari esan eutsana?

Dabillanak, geldi ta bakean dagonari, sakabanatzaille; eta astoak mandoari, bclarri-aundi... Gorantziak emioizak Ellakuri'ko txakurrari.

LANDAJUELA'tar A.'k

ZER DA

Atzagiltza? Atzamarren zatiak lotzen dituan azur-alkatzea.

Ezkabia? Bazpi antzekoz agertzen dan gaisoa, gasteleraz tiña.

Gibel? Atzeko aldea, Laburdi'n, Naparroa'n eta Zuberoa'n. Mendiaren giblean.

Kala? Itxas zabalean arraintzarako artzen dan tokia.

Ezten? Zulatzeko tresnea, zugeen gana pikatzeko.

Ganbela? Askea edo zerbait alboetara jausi barik eukiteko ontzia.

Txeka? Adarra joteko esaten dan irudia.

Zozkon? Gorputzaren izaera berezia.

Ekandua? Asabakandik, guraso zarrakandik datorren oiturea.

Buruzagi? Talde bateko nagusia edo agintaria, batez be gudarien artean nagusiena.

Amarratza? Itxasoko arriai sendo oratzen dautsen arraiña, pulpoa.

Zurrukutuna? Kardatutako artillearen moltzo biguna edo marmitakoa edo maita dan norbait.

†

Zezeillaren 24'an il zan Zeanuri'n
URIBE'TAR PETRA, ZER'en zuzen-
dari dogun Olaraz'tar Martin'en ama.

Samintasunean laguntzen dautsagu
Martin'eri eta bere amaren alde, gure
otoitza.

(Goian Bego)

Idazkolakoak

BIZKAI'KO
ADITZA IKASTEKO
«EUSKAL-ADITZA
BIZKAIERA»

2—argiteraldia
Salgai liburutegietan
eta egilleak berak
PUXANA

«EUSKERAZALEAK» ALKARTEAK EUS-
KAL IKASTARO BAT ERATUKO DAU

NOZ? Epaillaren 27'tik, jorraillaren 8'ra arratsaldeko 7'retatik 9'retara.

NON? Eskolapioen ikastetxean (Alda. Rekalde 19' an)

NORTZUNTZAT? Euskeraz jakin eta euskal jakintzea gitxi sakondu dabenentzat.

GAIAK: Kondaira (Historia), Lutelestia (Geografia), Elertia (Literatura) eta Idaz-Arterpenak (Comentarios de textos).

IZENA EMON: «EUSKERAZALEAK» Colón de Larreategi, 14-2.º.